

JARDUERA-PLANA

(22. ASTETIK IKASTURTE AMAIERARA)

Mekanikaren Oinarriak

Automobilgintza

2020/3/26

Irakasgaiaren koordinatzailea
Estibaliz Apiñaniz Fernández de
Larrinoa

AURKIBIDEA

1. Edukiteoriko-praktikoak
2. Metodologia
3. Ebaluazio-sistemak
4. Ohikodeialdia: orientabideak

1. EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Ez dira aldatu.

2. METODOLOGIA

2.1. IKASGELAKO KLASE MAGISTRALAK ETA PRAKTIKOAK

Eskolak Blackboard Collaborate-n (BBC) bidez emango dira. Metodologia lehengoaren berdina da, arbela eta ppt gardenkiak. Eskola amaitzean egunean egindakoa e-gelan adierazten da eta datorren egunerako egin behar dutena ere e-gelan idazten da. Entregatzeko problemak ere e-gelan adierazten dira.

Saioetan edo saioak baino lehen Socrative-n bidezko galdetegia egiten da eta hora gertutako arazoak gelan lantzen dira. Normalean ez dira eskolak grabatuko (saioan zehar arazoren bat badago, gaur bezala, problemaren ebazpena grabatu daiteke, ikasle guztiek eskuragarri izan dezaten).

2.2. MINTEGIAK

Ikus aurreko atala.

2.3. LABORATEGIKO PRAKTIKAK ETA ORDENAGAILUKO PRAKTIKAK

Bi praktika-saio geratzen zaizkie, oraingoz atzeratu ditugu. Baina dagoeneko pentsatu dugu horrela jarraitzekotan, praktikan egin beharreko txostena emango diegula, baina datuak beraiek jaso beharrean guk jada jasota eman eta beraiek errorean tratamendua egingo lukete.

2.4 TUTORETZAK

e-maila, BBC edo telefonoaren bitartez egingo dira (nire sakelekoaren zenbakia eman diet).

3. EBALUAZIO-SISTEMAK

Irakaskuntza gidan publikatutako ebaluazioa-prozedura ez da aldatuko (ikus e-gela edo GAUR). Aldaketa bakarra hauxe izango da: ebaluazio jarraitua geratzen zitzaigun azken proba on-line froga bat izango da e-gelaren bitartez egingo dena. Hau da, ikasleek, Eskolako egutegian aurreikusitako data eta orduan ataza bat jasoko dute e-gelan eta erantzuna eskaneatuz edo argazki baten bidez igo beharko dute. Dagoeneko, beste proba bat egin dugu prozedura berdina jarraituz eta ikasle guztiek arazorik gabe egin ahal izan dute.

4. OHIKO DEIALDIA: ORIENTABIDEA

Irakaskuntza gidan publikatutako ebaluazioa-prozedura ez da aldatuko (ikus e-gela edo GAUR) ez ebaluazio jarraitua egiten ari direnentzat, ez eta uko egin diotentzat. Aldaketa bakarra hauxe izango da: proba on-line froga bat izango da eta e-gelaren bitartez egingo da. Hau da, ikasleek, Eskolako egutegian aurreikusitako data eta orduan ataza bat jasoko dute e-gelan eta erantzuna eskaneatuz edo argazki baten bidez igo beharko dute.

5. CONVOCATORIA EXTRAORDINARIA: ORIENTACIONES

Irakaskuntza gidan publikatutako ebaluazioa-prozedura ez da aldatuko (ikus e-gela edo GAUR). Behar izatekotan, aldeztu aurreko azterketa egitea posible ez bada, aldaketa bakarra hauxe izango da: proba on-line froga bat izango da eta e-gelaren bitartez egingo da. Hau da, ikasleek, Eskolako egutegian aurreikusitako data eta orduan ataza bat jasoko dute e-gelan eta erantzuna eskaneatuz edo argazki baten bidez igo beharko dute.